

Esperantza bidean

Aspaldiko garai batean bazen Marimuki izeneko printzesa xarmant bat. Urteak zeramatzan gaztelu zahar batean preso. Egunak malkotan igarotzen zituen, mokanes arrosak xukatzeko astirik ez zuela. Hala ere atsekabe hartan goizero bizirauteko indarra ematen zion adiskidea aurkitua zuen, penak hegan eramaten zizkion txori bat. Eguzki amandrea jalgi orduko etortzen zitzaionean, Marimukik honela kantatu ohi zion: "Goizian argi hastian...Laster duan aidian."

Handik hurbil, mutil prestu bat sendotzen ari zen. Halako batean, bizitzako abentura garrantzitsuenean murgiltzeko erabakia hartu zuena. Askok horretan bizia galdu bazuten ere bere hautuak ez zuen jada atzera bueltarik, gusta ala gusta bere ametsetako printzesaren bila abiatuko baitzen. Zaldi bizkorrena harturik ezpata eta lantza gerrian, trostan bideari ekin zion.

Erortzear ziren arroka izugarriak saihestu, dragoi ikaragarria garaitu, labirinto amaigabe batetik bizirik atera, oihaneko pizti zitalei aurre egin eta krokodilo beldurgarri bat atzean utzi zituen. Baina haren hitzetan ez zen etsipena existitzen, hortaz, ilargiak bere hamabosgarren bira egin zuenerako ametsetako gaztelura iritsi zen. Ez bat ez bi, printzearen ezpata abilak, bi zaintzaileak lurrean utzi zituen.

Korrika batean, Marimukiren ziegara heltzeko azken eskailerak igo zituen. Gelatxo hartan lehen pausoa ematearekin, printzesak gainera salto egin zion. Orduan printzeak besoetan harturik, zaldiraino eraman zuen eta Marimukik txoriari azken agurra bidaltzen ziola, abiatu ziren munduko printze eta printzesa zorionsuenak, berriz sekula zorigaitzik agertuko ez zen bidean.

"BAM BAM BAM"

Zarata latz horrek jautsarazi zuen Kattalin errealitatera. Senar mozkorren oin hotsek ezin neskatzaren egia gorde. Negar malko bat isuri zitzaion matelan behera, sendatu gabe zituen ubelduren gainetik beste batzuen jasateko adorerik ez zuela. Kolpeez ahaztu nahian pentsatu zuen munduko bortizkeria guziak ez ziola inoiz amestea eragotziko. Marimukiren antzera, infernutik ihes egiteko ez zitzaiola printze salbatzailerik etorriko baina bere baitan aurkitu beharko zuela irteteko indarra. Eta halaxe berak ere etsipen hitza hiztegitik desagerrarazi nahian bere buruari agindu zion noizbait zorigaitzik gabeko bide hark berearekin egingo zuela topo.